

“Herritartasunerako hezkuntza” jardunaldia egingo da maiatzaren 7an, ELEAk antolatuta

2010/04/25

Maiatzaren 7an egun bateko jardunaldia egingo da HUHEZIn, **Herritartasunerako hezkuntza**, ELEA taldeak antolatuta.

Egitaraua

- 09:00** Sarrera. ELEA taldeak aurkeztuko ditu jardunaldiak
09:15 Gema Celorio (Hegoa, Gasteiz): La construcción social de la ciudadanía: una perspectiva educativa
10:15 Araceli Caballero (Intermon, Bartzelona): Ciudadanía y consumo responsable
11:45 Atsedena
12:45 Rafa Mendia (Zerbikas fundazioa): Aprendizaje y servicio, una estrategia para el desarrollo de la competencia ciudadana
13:15 Atsedena
15:00 Praktika onak
15:00 Susana Corral (Abra kolektiboa): Heziketa afektibo-sexuala
15:30 Marisabel Albizu, Idoia Badiola, Reme Santos eta Javier Torrela (Aldatze ikastetxea, Eibar): Mundua aldatzen
16:00 Garbiñe Badiola eta Idurre Olano (Txomin Agirre ikastola, Ondarroa): Motxil proiektua: adimen emozionala arlo curricularretan
16:30 Elkarrizketarako unea

ELEA taldea

ELEA taldea HUHEZI fakultatean kokatzen da (Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Mondragon Unibertsitatea). Taldearen interesak —bai hezkuntza arloan, bai ikerketan— honako hauek dira: kultur aniztasunaren trataera inklusiboa hezkuntza sisteman, kultur arteko hezkuntza eta balioen hezkuntza, eta herritartasunerako hezkuntza. Taldea diziplinartekoa da; bere koordinatzailea **Amelia Barquín** da, eta beste kideak, **Nerea Alzola**, **Monika Madinabeitia** eta **Ane Urizar**.

Egungo taldea duela lau urte sortu zen eta zenbait ikerketa gauzatu ditu ondoko eremuetan: testuinguru kultur aniztetako ikas-irakaskuntzan, hizkuntzen ikas-irakaskuntzan eta baita ere irakasleriaren pertzepzioen arloan immigrazioaren eta ikasle etorkinen inguruan.

Esan bezala, taldeak HUHEZIn jarduten du. Fakultate hori aitzindaria izan da “Kultur arteko Hezkuntza” materia ikasketa planetan sartzean, bai Irakasle Ikasketetan (2004) bai Psikopedagogian (2002) eta “Herritartasunerako Hezkuntza” Irakasle Ikasketak graduan ere txertatzean (2005). ELEAren partaideek, bestalde, formazio iraunkorreko ikastaroak eman dituzte kultur arteko sentsibilizazioaren arloan, hainbat eskolatarako klaustroekin.

